

ONGI ETORRI ARRASATERA

Welcome
to ARRASATE

Baliabide gida

A resource guide



Euskara · English



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Kaixo lagun, esku artean duzun baliabideen gida honek tresna probetxugarria eta eraginkorra izatea baino ez du helburu Arrasatera heldu berri zareten guztiontzat. Gida hontan, zerbitzu eta baliabideak aurkituko dituzu.



BALIABIDEGIDA


Guía de recursos




BALIABIDE MAPA

Mapa de recursos

Mapa honetan, ondorengo baliabide gidan agertzen diren baliabideen kokapena azaltzen da. Informazio zehatzagoa eta deskribapenak barrualdean aurkituko dituzu.





GAIAK



Erroldatzea
Registration of residency



Enplegua
Employment



Kultura aisialdia eta kirola
Culture, leisure & sports



Harrera, orientazio eta informazio zerbitzua
Reception, orientation & training service



Etxebizita
Housing



Hondakinak
Waste



Osasuna
Health



Gizarte zerbitzuak
Social services



Emakumea eta berdinatuna
Women & equality



Hezkuntza
Education



Informazio, salaketa eta aholkularitza juridikorako bulegoa



Sexologia zerbitzua
Sexology service



Hizkuntzak
Languages



Gainerako informazio interesgarria
Other information of interest

Erroldatzea

Registration of residency



Herriko Udalan izena ematea da erroldatzea. Etorri berria bazara (legezko egoeran egon ala ez) eta Udaleko erroldan izena ematen baduzu, herriko bizilagun bihurtuko zara eta hainbat eskubide lortuko duzu. Derrigorrezkoa da hauetarako sarbidea lortzeko: osasun-arreta, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza. Erroldatzea pertsonala da, beraz ezin du inork beste pertsona bat bidali bere izenean izena eman dezan.

Registration of residency is registering with the town council. If you have recently arrived (with your papers in order or otherwise) and you register with the municipal census you will become a municipal resident and be entitled to several rights. It is compulsory to access: the health system, social services and education. Registration of residency is personal; therefore, nobody can send somebody else on their behalf for the registration.

Honako dokumentuak aurkeztu behar dituzu:

Documentation required to register residency:

- BAZen emango dizuten eskaera ofiziala.
- Identifikatzeko agiri ofiziala (NAN, AIZ edo pasaporte indarrean), baita fotokopia bat ere.
- Etxebizitzaren erabilera egiaztatzen duen dokumentua (jabetza-eskritura, alokairu kontratua, etab.), baita fotokopia bat ere.
- Application form which you get from the BAZ (Residents' Assistance Service).
- Official ID (Spanish ID Card, NIE [foreign resident's ID] or valid passport)
- Document accrediting use of the property (property deeds, rental contract, etc.), likewise a photocopy thereof.

BAZ

Biztanleen Arreta Zerbitzua
Residents' Assistance Office



Arano eta Garcia maisu-maistrak, 8



943 25 20 00



Astl.-Osti. | Mon.-Fri. : 8:30 > 19:00
Larun. | Sat. : 9:00 > 13:00



www.arrasate.eus



Harrera, orientazio eta informazio zerbitzua



Reception, orientation
& training service

Bizilagun berriarentzat herrian eta bailaran dauden baliabideen inguruko informazio pertsonalizatua ematen duen zerbitzua da (baliabideak, ikastaroak, etab.).

This service provides personalised information for the new resident regarding existing resources in the municipality and vale (resources, courses, etc.).

Osasuna

Health



Asistentzia sanitarioa publikoa eta doakoa da. Lehen mailako asistentzia Osakidetza osasun zentroan ematen da. Osasun-arreta jasotzeko osasun txartel individuala (OTI/TIS) lortzea beharrezkoa da. Hau, osasun-zentroan eskatu behar da eta ezinbestekoa da errolda-zurtagiria eramatea.


Health assistance is free and public. Primary assistance is provided at the Osakidetza health centre. To receive health assistance you must get an individual health card (OTI/TIS). You must request this card at the health centre; furthermore, it is essential you present your residency registration certificate.

HARRERA ZERBITZUA

Ekin emakumeak elkarteak
Ekin Emakumeak Association

 Pablo Uranga, 4 behea

 943 79 83 70

 Astl.-Asteaz. | Mon.-Wed. : 16:00 > 18:00
Astear. | Tues. : 10:30 > 12:30

 aniztasuna@ekinemakumeak.eus

OUTPATIENTS' Primary assistance

AMBULATORIO Atención primaria

 Nafarroa Etorbidea z/g

 943 03 52 50

ESKUALDEKO HOSPITALEA

REGIONAL HOSPITAL


 Nafarroa Etorbidea z/g

 943 03 53 00

LARRIALDIAK 24 ordu.

EMERGENCIAS 24H.

 Nafarroa Etorbidea z/g

 112 · 943 03 53 00

Hezkuntza

Education



Arrasaten ikastetxe publikoak eta itunpekoak daude. Heziketa derrigorrezkoa da 6 eta 16 urte bitarteko guztientzat. 6 urte baino gutxiagoko haurrentzat ere hezkuntza zentroak daude. Matrikula garaian matrikulatu behar da. Epez kanpo etorri gero Hezkuntzako eskolatze –batzordeak banatzen ditu ikasleak.

Ikastetxe guztiek dute beka sistema, barnekoa edo Eusko Jaurlaritzakoa. Bekak eta laguntzak ikastetxean izapidetzen dira. Bete beharreko baldintzak, data garrantzitsuak eta bestelako informazioa kontsultatzeko, 'Bekak, laguntzak eta diru laguntzak' atala kontsulta daiteke, www.hezkuntza.net web orrian. Informazio gehiagorako jar zaituzte ikastetxearekin harremanetan.

Heldua bazara, badaukazu ikasteko aukera ere. Horretarako daukazu Helduen Heziketa Iraunkorrerako zentroa (HHI). Goi mailako eta lanerako prestakuntza eskaintzen dituzten bestelako zentroak ere baditugu gure eskualdean. KZ-GUNEA liburutegiko 3. pisan kokatzen da, internet erabiltzen eta sarean nabigatzen doan ikasteko gunea da.

There are public and semi-private schools in Arrasate, and education is compulsory for everyone between 6 and 16. We also have educational centres for the under 6. There is a limited enrolment period for schools, so if you have arrived in Arrasate halfway through the school year, the Basque Government Schooling Commission will decide which school the student will attend.

All schools have an internal or Basque Government grant system. Grants and benefits are dealt with by the schools. To consult requirements, dates and relevant information, you can consult the 'Grants, benefits and subsidies' section in www.hezkuntza.net. For further information contact the school.

Adults also have the opportunity to study, at the Centre of Permanent Adult Education (EPA – Spanish acronym), which imparts: basic studies, compulsory secondary education, Spanish, basic Basque and English; in addition to literacy, and university access preparation. In the region, there are other centres offering higher grade and occupational training. KZ-GUNEA centre, where you can learn how to use the Internet and browse the net free of charge, is on the 3rd floor of the library.

ADINA URTEKA · AGE	HEZKUNTZA MOTA · Education type
0-6	Haur Hezkuntza · Crèche
6-12	Lehen Hezkuntza · Kindergarten
12-16	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza · Primary Education
15-17	Oinarrizko Lanbide Hastapena · Compulsory Secondary Education
16-18	Batxilergoa / Erdi mailako Heziketa zikloak Baccalaureate/ Medium Grade Training Cycles
18tik aurrera From 18 onwards	Helduentzako Hezkuntza Iraunkorra / Goi mailako Heziketa Zikloak / Unibertsitatea Permanent Adult Education (EPA) / Higher Grade Training Cycles / University

HAURRESKOLAK (0-2 urte)

HAURRESKOLAK (0-2 years)



BEDOÑABE: 943 79 76 86



MUSAKOLA: 943 79 13 03



www.haureskolak.eus

UDAL HAUR ESKOLA (0-3 urte)

HAUR ESKOLA MUNICIPAL (0-3 years)



UMEZAINZA: 943 77 20 25



URIBARRI: 943 77 20 25



www.haureskolak.eus

ARRASATE HERRI ESKOLA (2-12 urte)

ARRASATE HERRI ESKOLA (2-12 years)



BEDOÑABE – 2-6 years: 943 79 76 86



MUSAKOLA - 2-6 years: 943 79 13 03



ERGUIN – 6-12 years: 943 79 77 74



www.arrasateherrieskola.hezkuntza.net

ARRASATEKO INSTITUTUA (12-18 urte)

ARRASATEKO INSTITUTUA (12-18 years)



Santa Teresa 24 - 25



12-16 years: 943 79 20 38



16-18 years: 943 79 83 00



www.arrasatebhi.hezkuntza.net

HELDUENTZAKO HEZKUNTZA

IRAUNKORRA (18 urtetik aurrera)

PERMANENT ADULT EDUCATION (EPA)

(From 18 onwards)



Arrasate Pasealekua, 1



943 77 11 72



www.epaarrasate.hezkuntza.net

ARIZMENDI IKASTOLA (0-18 urte)

ARIZMENDI IKASTOLA (0-18 years)



0-6 years: OLARTE

3-6 years: UMEZAINZA – URIBARRI

2-6 years: SANTA TERESA

6-12 years: GAZTELUONDO - ARIMAZUBI -
SANTA TERESA

12-18 years: GAZTELUPE

A partir de 16 years: LANBIDE HEZIKETA,
FERIXALEKUA



Otalora Lizentziatua, 8



943 77 20 25



www.arizmendi.eus

ONARRIZKO LANBIDE

HASTAPENA (15-17 urte)

BASIC OCCUPATIONAL TRAINING

(15-17 years)



Nafarroa Etorbidea, 21



943 79 28 90



idazkaritza@lanbidehastapena.com



Hizkuntzak

Languages




Arrasaten euskara da berezko hizkuntza eta gaztelania-ekin batera ofiziala. Euskaltegiak dira helduek euskara ikasteko eskolak. Udal Euskaltegiak euskara errefortzuak ere eskaintzen ditu ume eta nerabe etorkinentzat (Arrasaten jaiotze ez direnentzat), eta ikastetxeetatik bideratuta joan ahalko dira. Badira ere forma ludiko batean oinarritutako euskara ikasteko helduentzako programak (Auzoko).

Basque is the co-official language with Spanish. Euskaltegis are Basque language academies for adults. The Municipal Euskaltegi also provides support classes for immigrant children and teenagers, who will be referred from schools. There are also programmes for teaching Basque based on games (Auzoko).

Euskara · To learn Basque


UDAL EUSKALTEGIA EUSKALTEGI MUNICIPAL

 Arimazubi Plaza, 2

 943 79 70 77


AEK EUSKALTEGIA

 Garibai, 14

 943 77 03 69

AUZOKO PROGRAMA

 Pablo Uranga, 4

 943 79 83 70

Gaztelera · To learn Spanish

HELDUENTZAKO HEZKUNTZA IRAUNKORRA (HHI). PERMANENT EDUCATION FOR ADULTS (EPA).


 Arimazubi Plaza, 2

 943 79 70 77

IME

The Muslim Woman's Inclusion in the Basque Country

 Jose Luis Iñarra, 32

 654 88 46 16 (Djamila)

 Astl.-oste. | Lun.-Jue. : 09:30 > 11:00

Enplegua

Employment



Lan bila bazabiltza jakin ezazu hiru erakunde publiko daudela Arrasaten bilaketa horretan laguntzeko, Enpleguko Institutu Nazionala (SEPE), Enpleguko Euskal Zerbitzua (LANBIDE) eta Debagoieneko Garapen Agentzia. Hiruretan izena eman dezakezu aldi berean. Aholkuak, formazioa eta enplegua eskainiko dizkizute bertan izena ematen baduzu baina horretarako, lan-baimena behar duzu. Lan baimenik ez badaukazu, aholku eske joateko eta ikastaroak egiteko aukera izango duzu. Autoenplegurako aholkua ere jaso dezakezu. Beste bide batzuk ere erabili ditzakezu enplegua bilatzeko: prentsako iragarriak, web orriak, iragarki oholak, eta ABLEak (Aldi Baterako Lanerako Enpresak).

If you are looking for a job, you should know there are 3 public bodies in Arrasate to help you in your search, namely: SEPE National Employment Institute, Basque Employment Services (LANBIDE) and the Alto Deba Development Agency. You can register with all 3 at the same time. They will provide you with advice, training and employment if you register; however, you will require a work permit for this. Should you not have one, you can request advice and do some courses. You can also get advice on self-employment. There are other job search sources, e.g. press advertisements, webpages, notice boards, ETTs (Temp Agencies).

LANBIDE

Lan bilaketa, formazioa eta diru-laguntzak
Job search, training and subsidies



Nafarroa Etorbidea, 12



943 02 38 60

DEBAGOIENeko GARAPEN AGENTZIA

ALTO DEBA DEVELOPMENT AGENCY

Lanerako orientazio eta prestakuntza
Employment orientation & training



Mancomunidad del Alto Deba
Nafarroa etorbidea, 17



943 79 30 90

SEPE (Estatuko Enplegu Zerbitzu publikoa)

SEPE (State Employment Public Service)

Lan bilaketa, formazioa eta prestazioak
Job search, training and benefits



Nafarroa Etorbidea, 12



943 98 05 98



Etxebizitza

Housing

Etxebizitza alokatu edo erosteko higiezin agentzietara jo daiteke, edo bertako egunkarietako (Goiena) iragarrietan bilatu. Gizarte babeseko etxebizitza alokatzeko (ALOKABIDE) edo erosteko ETXEBIDEn eman behar da izena. Izen ematea BAZ-en egin daiteke. Baldintzei eta eskaerari buruzko argibideak hemen >

To rent or purchase a home you can go to estate agents or look through advertisements in the local press (Goiena). To rent (ALOKABIDE) or purchase social housing you must register with ETXEBIDE. You can register at BAZ. Information related to conditions and applications >

Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak Arrasateko 18-35 urte bitarteko gazteei etxebizitza alokairua ordaintzen laguntzeko diru-laguntzak ematen ditu.

Arrasate Council Youth Department offers benefits to young people between 18 and 35 to help pay home rental. For further information.

Gizarte zerbitzuak

Social services

Gizarte ekintza garatzea du helburu nagusi Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak, eta horretarako koordinatu eta kudeatzen du gizarte zerbitzuetako sistemen erakundeetara iristeko bidea. Hauek dira eskaintzen dituen zerbitzuak: informazioa, balorazioa, aholkularitza, prestazioen kudeaketa, elkarbizitzako programak, egoitzaren kudeaketa, etab.

ARRASATEKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK ARRASATE COUNCIL SOCIAL SERVICES

 Txaeta, 3  943 25 20 07  ongizate@arrasate.eus

ETXEBIDE

 012 eta 945 01 80 00

 www.etxebide.euskadi.eus

ALOKABIDE

 944 044 708

 www.etxebide.euskadi.eus

Informazio gehiago:

More information:

ARASATEKO UDALA

 www.arrasate.eus/dirulaguntzak

The central purpose of Arrasate Council Social Services Department is to develop community action, co-ordinating and managing access to different areas in the social services system. The following services are provided: Information, valuation, advice, handling benefits, co-existence programmes, senior citizen residence management, etc.

Informazio, salaketa eta aholkularitza juridikorako bulegoa



Office to request/receive legal information/advice, and make an official report

Bulego honetan atzeritartasun tramiteen inguruko aholkularitza eskeintzen da. Bertan, erregularizatzeko aukeren, berriztapenen, familia berrelkarketen, nazio-tasunaren eta bestelako tramiteen inguruko informazioa aurkitu dezakezue. Gainera, fase administratiboan helegiteak egiten dituzte. Horrez gain, xenofobian edo arrazismoan oinarritutako diskriminazio kasuak salatu daitezke bertan. Zure herrialdean lortutako ikasketa titulua homologatzeko baldintzen inguruan informatzeko, deitu Eusko Jaurlaritzara: 012

This office provides legal advice for matters affecting foreign citizens: regularisation, renewals, family regrouping, nationality and other procedures. They also lodge administrative stage appeals. You can also report cases of discrimination due to racism or xenophobia.

For information on how to homologate university/non-university qualifications obtained in another country, call the Basque Government: 012

SOS RACISMO DEBAGOIENA



Arrasate Pasealekua, 3 behea
(1. eta 4. bulegoak)



658 74 97 55



sos.debagoiena@gmail.com



Kultura aisialdia eta kirola

Culture, leisure & sports



Bibliotekak, kultur etxea eta antzokia

Libraries, cultural house & theatre

UDAL BIBLIOTEKA MUNICIPAL LIBRARY



Azoka kalea 1



943 25 20 25



688689113



biblioteka@arrasate.eus
haurbiblioteka@arrasate.eus

KULTURATE Kultur-etxea KULTURATE Kultur-etxea



Azoka kalea, 1



943 25 20 08



kultura@arrasate.eus

SANTA MARINAKO BIBLIOTEKA SANTA MARINA LIBRARY



Toki Argi eraikina, Agerre kalea 2



943 71 19 25



auzobiblioteka@arrasate.eus

AMAIA ZINE-ANTZOKIA AMAIA CINEMA-THEATRE



Otalora, 2



943 25 20 41



antzokia@arrasate.eus



Ludotekak

Play centres

3-11 urte arteko haurrei zuzenduta, aisialdiaz gozatzeko gu-
neak dira, euskaraz, modu aktiboan eta parte-hartzailean.

Aimed at children between 3 and 11, these are: leisure
spaces in Basque, game and entertainment spaces, where
they can have a good time, get on with other people, take
part in the district and community, develop creativity, ex-
press emotions, etc.





Astl.-Osti. | Mon.-Frid. : 17:00 > 20:00

Azaroa > Otsaila | November to February : 17:00 > 19:30




www.arrasate.eus/ludotekak

ERDIGUNEKO LUDOTEKA LUDOTECA CENTRAL

-  Okendo, 4
-  943 25 20 88
-  gazteria@arrasate.eus

SANTAMAÑAKO LUDOTEKA LUDOTECA DE SANTA MARINA

-  Galizia, 1 A
-  943 25 20 88
-  gazteria@arrasate.eus

URIBARRIKO LUDOTEKA LUDOTECA DE URIBARRI

-  Usaetxe plaza, 6
-  943 25 20 88
-  gazteria@arrasate.eus



Gaztetzokoak Gaztetzokos



12-17 urte arteko nerabe guztiei zabalik, ondo pasatzeko eta euren garapenean esanguratsuak diren arlo ugari lantzeko guneak dira; pertsonen arteko harremanak, parte hartzea, sormena, autonomia, emozioak, ... Gaztetzokoetan hiru zehar lerro jorratzen dira: berdintasuna, euskara eta inklusioa.

Spaces aimed at young people between 12 and 17, where they can have a good time and emphasise their personal development via relationships, participation, creativity, autonomy, emotions, etc.




 Astl.-osti. | Tues.Frid. : 17:00 > 20:00

 www.arrasate.eus/gaztetzokoak

MUSAKOLAKO GAZTETXOKOA GAZTE TXOKO DE MUSAKOLA

-  Elkano, 10
-  943 25 20 88
-  gazteria@arrasate.eus

ERGUINGO GAZTETXOKOA GAZTE TXOKO DE ERGUIN

-  Erguin, 27
-  943 25 20 88
-  gazteria@arrasate.eus

SAN ANDRESEKO GAZTETXOKOA GAZTE TXOKO DE SAN ANDRES

 Kurtze Txiki Plaza, 2

 943 25 20 88

 gazteria@arrasate.eus

GAZTEGUNEA GAZTEGUNEA

 Pablo Uranga, 6

 943 25 20 88

 gazteria@arrasate.eus

 Osti. | Vie.: 18:00 > 21:00
Lar./Iga. | Sáb./Dom. : 17:00 > 21:00




Gazte bulegoa Young people's office

Gazteei informazioa, aholkuak, orientazioa eta laguntza emateko bulegoa da. Ikastaroen, beken, lanaren, bidaien... inguruko informazio pertsonalizatua ematen da.


This office is to: inform, advise, orient and attend young people. Personalised information is provided on: courses, grants, jobs, travelling, etc.

GAZTE BULEGOA · OFICINA JUVENIL

 Biteri etorbidea 3 · Garibai Etxea

 943 25 20 65

 gaztebulegoa@arrasate.eus

 Astl.-Oste. | Mond.-Thurs. : 11:00 > 13:00
Osti. | Frid. : 10:00 > 14:00
Astl. eta Oste. | Mond.. and Thurs. : 16:00 > 19:00



Kirola Sports

Kirola egiteko udal instalazio ugari dago Arrasaten. LEINTZ ESKOLA KIROLA-k 6 urtetik 14 urte bitarteko neska-mutilei egokitutako kirol eskaintza antolatzen du. Gainera, hainbat kirol elkarte daude.


There are numerous sports installations to do sports. LEINTZ ESKOLA KIROLA organizes adapted sports for children from 6 to 14.

MUSAKOLAKO POLIKIROLDEGIA, ITURRIPEKO KIROLDEGIA eta UHARCAPE PILOTALEKUA MUSAKOLA SPORTS CENTRE, ITURRIPE SPORTS CENTRE & UARCAPE FRONTON.

 943 25 20 30

 kirola@arrasate.eus

LEINTZ ESKOLA KIROLA

 943 71 20 33 · 667653044

 www.leintzeskolakirola.eus

BESTE KIROL ELKARTE BATZUK

FURTHERMORE, THERE ARE SEVERAL SPORTS ASSOCIATIONS

 www.arrasate.eus/informacion-practica/asociaciones



Gaztetxea

Gaztetxe

Herriko gazteei zuzendutako gune autogestionatua, euren ekimenak sustatzeko. Asanblada irekiak, ostiraletan 18:30etan.

Self-managed space aimed at young people.
Assemblies on Fridays at 6:30pm.

AGAKO

AGAKO



Otalora Lizentziaduna, 10 Bis



arrasatekogaztetxea@gmail.com



Musika

Musika

ARRASATE MUSIKAL Musika Eskola

ARRASATE MUSIKAL Music School



Zarugalde Kalea, 1



943 77 05 40

HERRIKO MUSIKA TALDEEK ENTSEATZEKO LOKALAK.

REHEARSAL PREMISES FOR ARRASATE MUSICAL GROUPS.



Otalora lizentziatua, 10 bis
Musakola (Depositos)



943 25 20 88



gazteria@arrasate.eus

Hondakinak

Waste



Arrasaten hondakinak jatorrian sailkatzen dira: ontzi arinak (edukiontzi horia), beira (berdea), papera eta kartoia (urdina), errefusa (grisa) eta organikoa (marroia). Azken biak zabaltzeko txartela Hondakinen Kudeaketa Bulegoan (Debagoieneko Mankomunitatea) eskuratu behar da. Horretaz gain, auzo guztietan sukaldean erabiltako olioak jasotzeko edukiontziak eta ehunak eta objektu berberilgarri txikiak jasotzeko edukiontziak daude. Traste zaharrak (altzariak, koltxoak, tresna elektrikoak, etab.) edukiontzien ondoan utzi daitezke ASTEARTE guztietan 20:00etatik 22:00etara, aldez aurretik telefono honetara deituz: 943 71 19 38. Hauek eta zure etxean sortzen diren hondakin guztiak kudeatzeko beharko dituzun azalpenak eta argibideak, "BIRZIKLATU ZALANTZA BARIK" GIDAn ikusi ahalgo dituzu. Informazio gehiago:

In Arrasate waste is classified according to origin: lightweight recipients (yellow container), glass (green container), paper and cardboard (blue container), rejection (grey container) and organic (brown container). To open the last 2 you must get a card from the Alto Deba Association. Furthermore, all the districts have containers which collected used cooking oil, textiles and small reusable objects. Old junk (furniture, mattresses, electronic equipment, etc.) can be deposited next to the containers on TUESDAYS from 8:00pm – 10:00pm, calling the following number in advance: 943 71 19 38. You will find the necessary explanations and instructions to administer the waste generated in your household in the 'RCYEL WITHOUT DOUBT' GUIDE. Further information:

HONDAKINEN KUDEAKETA BULEGOA · WASTE MANAGEMENT OFFICE



Nafarroa Etorbidea, 17



943 50 47 21



Emakumea eta berdinatsuna

Women & equality



Emakume Txokoa da Berdintasun arloaren zerbitzu bat Arrasateko Udalean. Emakumeak ahalduntzeko eta emakumeen topaketarako gune bat eta prestakuntza leku bat da. Gainera, emakumeen elkarteak ere badaude Arrasaten.

Emakume Txokoa is the Town Council Equality Department service, which is an empowerment training service space for women and women to meet. There are also women's associations in Arrasate.

EMAKUME TXOKOA (Berdintasun Saila) EMAKUME TXOKOA (Area of Equality)



Jose Luis Iñarra Pasealekua, 10



943 79 41 39



emakumetxokoa@arrasate.eus



www.emakumetxokoa.arrasate.eus

EKIN EMAKUMEAK ELKARTEA ASOCIACIÓN EKIN EMAKUMEAK



Pablo Uranga 4, behea



943 79 83 70 / 651 70 79 36



emakumeak@ekinemakumeak.eus

IMME ELKARTEA (Inclusión de la Mujer Musulmana de Euskadi) ASOCIACIÓN IMME (Muslim Women Inclusion in the Basque Country)



Jose Luis Iñarra, 32



654 88 46 16 (Djamila)



djamila.zereiby@yahoo.es



Sexologia zerbitzua

Sexology service



Sexualitatearen inguruan heziketa, sentsibilizazioa, aholkularitza eta informazioa, herri osoari zuzenduta. Harremanetan jartzeko edo kontsulta bat egiteko, bulegora joan zaitetzke edo telefonoz deitu dezakezu.

Sexual education and awareness aimed at all the population. Direct attention, collaboration with collectives and activities: campaigns, courses, publications, talks, etc. To contact or consult you can call at the office or telephone.

SEXOLOGIA ZERBITZUA ARRASATE SEXOLOGY SERVICE



Garibai Etxea - Biteri, 3



943 25 20 66



sexologiazerbitzua@arrasate.eus



Astel. | Lun.: 10:00 > 13:00
Asteaz./Ost. | Mar./Jue.: 16:00 > 19:00

Gainerako informazio interesgarria

Other information of interest

UDALTZAINGOA MUNICIPAL POLICE



Nafarroa etorbidea 23.



943 25 20 10

CARITAS CÁRITAS (NGO)



Arrasate Pasealekua, 5.



943 79 18 87

SUHILTZAILEAK FIRE BRIGADE



943 78 28 00

ERTZAINNTZA ERTZAINNTZA (BASQUE POLICE)



Gipuzkoa etorbidea 2.



943 53 47 20

ARRASATEKO BAKE EPAITEGIA ARRASATE MAGISTRATE'S COURT



Ignazio Zuloaga, 6.



943 79 12 78

TAXIAK TAXIS



Garibai Hiribidea, 5.




943 79 12 22



BALIABIDEGIDA

A resource guide



ARRASATEKO UDALA

ARRASATEKO UDALA



Herriko Plaza, 1, 20500 Arrasate, Gipuzkoa



Astelehenetik - Ostiralera / De lunes a Viernes: 8:30-15:00



943 25 20 00



udala@arrasate.eus



43.065760, -2.489941



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN